

PATXI ZUBIZARRETA

Patxi Zubizarreta Dorronsoro está de enhorabuena. Son muchos los reconocimientos a su larga carrera como escritor de Literatura Infantil y Juvenil, los más recientes por Zerria (obra recomendada en este número de CALCO): Premio Euskadi de Literatura 2023, Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil 2023 y XL Premio Lizardi 2021. Patxi lleva más de veinte años participando en los Programas de Animación a la Lectura que diseñamos y desarrollamos en centros escolares de Navarra, y compartiendo literatura de calidad con una sensibilidad extrema, tanto a la hora de escribir como en sus encuentros con escolares, en los que quedan cautivados con su magia y cercanía

¿Por qué y para qué escribes?

A diferencia de nuestras señales de tráfico, en Portugal, ante las barreras de los pasos a nivel, en lugar del lacónico 'Atención al tren', encontramos este letrero: 'Atenção aos comboios. Pare, escute, olhe'. La señal nos invita a detenernos, a escuchar y a mirar a nuestro alrededor, y esa es precisamente la premisa que me guía a la hora de escribir, incluso de leer y de vivir, que creo que es lo mismo: para, escucha, mira.

“La lectura puede ayudarnos a no ser meros testigos de los acontecimientos, sino a protagonizarlos”

¿Por qué y para qué recomendarías leer? ¿Qué nos aporta la lectura?

Internet, el cambio de paradigma, el libro electrónico nos devolvió al abismo, a una especie de trastorno existencial que también conlleva muchas ventajas, pero en cualquier caso la lectura puede ayudarnos a resituarnos y a no ser meros testigos de los acontecimientos, a protagonizarlos: decía Aute

que « quien no tiene sueños, tiene dueños ». Somos lo que hacemos, pero también lo que dejamos de hacer.

¿Qué hace que nos acerquemos a los libros? ¿Qué condiciones son favorables para la lectura?

Me gusta recordar una costumbre propia de los beduinos: al atardecer, encienden una pequeña lámpara sobre una duna, como si fuera un faro en el mar de arena. Cualquiera que llegue extraviado a su campamento es recibido como una princesa o un príncipe: le agasajan con todo lo que tienen; también se sentirá presa o preso ante tantos honores; pero finalmente deberá ser poeta y elegir las palabras adecuadas para expresar su agradecimiento. *Princesa, presa, poeta...* Es así como yo me siento con un buen libro entre las manos, y como quisiera que se sintieran mis lectores, atrapados con una historia. La biblioteca, un buen café, un parque en otoño... es un campamento, un caravasar donde podemos (re)encontrarnos.

¿Qué aporta el encuentro con el alumnado en el aula a los participantes y a ti mismo?

Nuestros encuentros los sitúo en una caravana de letras donde son imprescindibles los



Lectura y nuevas tecnologías. ¿Se puede trabajar para intentar que el libro sea más atractivo?

Borges afirmaba que, entre los diversos instrumentos humanos, el más asombroso es, sin duda, el libro. Los demás son extensiones de su cuerpo: el microscopio, el telescopio, son extensiones de su vista; el teléfono, de la voz; luego tenemos el arado y la espada, extensiones de su brazo. Pero el libro es otra cosa: es una extensión de la memoria y de la imaginación. La cuestión es cómo adaptarnos, como susurrar con la voz de los cuentos de antaño, cómo reconvertirla en actual, cómo narrar en estos tiempos convulsos... Varios de mis libros vienen acompañados por un CD o por un código QR que permite escuchar una parte de la historia, pero sigo reivindicando el libro, el papel, la tinta con la que continuo escribiendo mis historias a mano.

Lecturas de tu infancia y juventud...

Me siento privilegiado porque tuve la suerte de escuchar la voz de la memoria: a mi madre, la historia de Genoveva de Brabante, o la de José, recogida en la Biblia (la adapté más adelante en la novela juvenil *Una naranja en la basura*), a Mariano Ibarra (cuando fui a recuperar mi lengua materna a Sunbilla, al norte de Navarra), a Joxe Arratibel, que contaba la versión en lengua vasca de Alí Baba (en lugar del conocido '¡Ábrete Sésamo!', él decía '¡Ábrite portas, elis, clas!'). En Ordizia, donde nací, ni siquiera teníamos biblioteca... Así que iba picando entre las Joyas Literarias Juveniles, la colección de Los Cinco, Salgari... y, sobre todo, empezaba a pergeñar mis diarios, mis palabras nocturnas.

Patxi Zubizarreta Dorronsoro zorioneko dago. Haur eta Gazte Literatura idazle gisa egindako ibilbide luzeagatik errekonozimendu ugari jaso ditu, azkenak Zerria idazlanagatik (CALCO honetan gomen datzen duguna): 2023ko Euskadi Literatura Saria, 2023ko Haur eta Gazte Literatura Sari Nazionala eta XL. Lizardi Saria 2021. Patxik hogeitau urte baino gehiago daramatza Nafarroako eskoletan diseinatzen eta garatzen ditugun Irakurketa Sustatzeko Programetan parte hartzen, eta kalitatezko literatura sentiberatasun handiz partekatzen, bai idaztean, bai eskola-umeekin egiten dituen topaketetan, haurrak liluratu utziz bere magia eta hurbiltasunagatik.

Zergatik, zertarako idazten duzu?

Betidanik idatzi ditut egunerokoak, baina sekula ez nuen imajinatu idazle izango nintzenik, Joan Mari Irigoien idazlea ezagutu nuen arte. Irakasle lanak utzi, eta idazten jarraitu nuen, baina kontua da gaur egun ez dudala egunerokorik idazten eta nire sekretuak liburuetan kontatzen ditudala, baina inork ez dakiela zer den nire-nirea eta zer ez...

Zertarako gomendatuko zenuke irakurtzea? Zer dakarkigu irakurketak?

Bizitzan bi motatako hitzak daude: egunerokoak, albisteenak, burtsarenak edo gerrarenak; eta gauekoak, ametsenak, ilusioenak, obsesioenak. Eta azken hauek dira literaturarenak. Irakurketak bizitzan aurrera egiten laguntzen digu, izan kontsolatzeko, izan matxinatzeko edo utopiak bilatzeko. Dena dela, literatura liburuetan dago, bai, baina baita iragarkietan, komunetako graffietan, gure elkarriketetan ere...

Zerk garmatza liburutara? Zein dira irakurketarako baldintza egokiak?

Ipar Poloan, ehiztari inuitak tundra amaigabeetan urruntzen direnean, harri biribilak eta granito zatiak bildu, eta giza itxurako mugari handiak eraikitzen dituzte: *inuksuitak* dira, gure mendietan ikusten ditugun monolito txikien antzekoak. Bidean aurrera, beste inuksuit bat eraikiko dute, beste orientazio puntu bat, bereziki elur-izotzetan herrixkara onik itzuli ahal izateko. Norberaren heziketa sentimentalean liburuak mundua hobeki ulertzen eta geure burua kokatzen laguntzen digute. Biblioteka inuksuiten aterpetxe bat da, babesleku bat, baina kafetegi bat ere egokia

“Irakurketak bizitzan aurrera egiten laguntzen digu, izan kontsolatzeko, izan matxinatzeko edo utopiak bilatzeko”

izan daiteke, espazioa ia gutxienekoa iruditzen zait.

Nolakoa da ikasleekiko harremana, zuri zeuri zer eragiten dizu?

Santiago Bérute irakasle-idazle nafarrak dio aro digitalak iraultza mentala ekarri digula, baina ez gaituela jakintsuago egin, ez gaituela zoriontsuago egin. Edozein modutan, literaturaren xarma berbera da, eta piztu egiten da gure saioetan. Ramón Gómez de la Sernaren esanetan, liburuak hegan eginarazten digun ehun hegoko hegazia da, eta argi dago azken hamarkadetan, besteak beste FI-RAri esker, hegaldi eder asko egin ditugula, ikusmira eta ikuspuntu aberasgarri ugari zabaldu zaizkigula. Saio hauen bitartez, literatura desmitifikatu dugu, bai, baina literatura aldarrikatzen jarraitzeko gogoia pizten zaigu.

Irakurketa eta teknologia berriak. Zerbait egin daiteke liburuak erakargarriagoa izan dadin?

Oso gogoan dut institutu bateko neskatala baten aitorpena: ‘Lehen, eskola garaian, liburu bat irakurtzean ahots bat entzuten nuen

neure baitan, baina institutuan baliabideak, egiturak eta gainerakoak aztertzen hasi ginenean ahots hori desagertu egin zitzaidan...’. Ez nago teknologia berrien kontra, alderantziz, baina ahots hori berreskuratzea da gakoa. Liburuak, izan, erakargarria da, albumen edo komikien kasuan bereziki, baina konplizitateak landu behar dira liburuak protagonismoa izan dezan: irakasleak, bibliotekariak, kazetariak... eta, jakina, idazleak eta marrazkilariak.

Zer diozu zure haurtzaroko irakurgaiak direla eta?

Liburu askok izan dute eragina niregan, baina egin kontu gurean ia ez genuela libururik, eta are gutxiago euskaraz. Enid Blyton, txiste-komikiei hala esaten genien- eta bertsio asko egon ziren nire haurtzaroan, baina gero *Printze Txikia* etorri zen, eta *Sidharta*, eta *Mila gau* eta bat gehiago ipuin bilduma. Uste dut azken honek hurbildu ninduela literatura arabiarra: Mohamed Xukri, Fatima Mernissi, Nagib Mahfuz... eta besteen ispiluan ere hobeki ikusi nuela neure burua.

